



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko EKAINA - 185. zenbakia

## Irailetik abendura, Baigorritik BECera, hemen da Bertsolari Txapelketa Nagusia

**14 saio izango ditu txapelketak. Bazkideok prezio berezia izango duzue sarreretan eta baita bestelako abantaila batzuk ere.**

Lau urteko zikloa bete da, tarte horretan herrialdeetako txapelketak jokatu dira eta horren ostean Bertsolari Txapelketa Nagusiaren txanda iritsi da. Irailaren 23an hasiko da Baigorriin 17. edizioa eta abenduaren 17an amaituko da, Barakaldoko BECen jokatu den finalarekin. Aurreko edizioan bezala, 14 saio izango ditu aurtengo txapelketak.

Azken bi urteotan egin diren herrialdeetako txapelketetan eskuratu dute bertsolariek Txapelketa Nagusian parte hartzeko aukera. Horiez gain, orain dela lau urteko finalistek zuzenean lortua zuten txartela. Horrela, 43 bertsolari dira izena eman dutenak: Agin Laburu, Aimar Karrika, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Amets Arzallus, Ander Lizarralde, Ander Fuentes "Itturri", Arkaitz Oartzabal "Xamoa", Asier Otamendi, Beñat Gaztelumendi, Beñat Iguaran, Beñat Lizaso, Beñat Ugartetxea, Eneko Abasolo "Abarkas", Eneko Lazkoz, Etxahun Lekue, Felix Zubia, Ibon Ajuriagojeaskoa, Igor Elortza, Iñaki Apalategi, Jon Maia, Jon

Martin, Jone Uria, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Maialen Lujanbio, Mikel Artola, Miren Amuriza, Miren Artetxe, Nahikari Gabilondo, Nerea Elustondo, Nerea Ibarzabal, Odei Barroso, Oihana Bartra, Oihana Iguaran, Oihane Perea, Onintza Enbeita, Sustrai Colina, Unai Agirre, Unai Gaztelumendi, Xabat Gallettebeitia eta Xabi Maia.

Duela urtebete pasa hasi ginen Bertsolari Txapelketa Nagusia diseinatzen eta prestaketa lanetan. Irailaren 12an egingo da aurkezpen ofiziala eta bertan Txapelketaren gaineko xehetasun guztiak emango dira. Irailaren 20an, berriz, aurkezpen festa egingo da.

### Bazkideentzako abantailak

Ohi bezala, Bertsozale Elkarteoko bazkideok prezio berezia izango duzue Bertsolari Txapelketa Nagusian jokatu diren 14 saioetako sarreretan. Baina, horrez gain, aurtengoan bestelako abantaila batzuk ere izango dituzue Elkarteoko bazkideok.

Batetik, orain arte ez bezala, soilik bazkideok izango duzue aukera Txapelketa Nagusiko saioetara joateko salgai jarri ohi dugun bonua eskuratzeko. Beraz, bazkideentzako bonua izango da, beti ere kontutan izanda bonu kopuru mugatua jarriko dela salgai. Bestetik, Bertsozale Elkarteoko bazkideok lehenetsuna izango duzue finalerako sarrera erosteko orduan; hainbat astez bazkide zaretenok erosi ahal izango duzue soilik. Abantaila hauen guztien inguruko berri zehatzagoa iraileko BertsoZalearen bitartez jasoko duzue.

Ekintza hauen bitartez bazkideok urte osoan eta urtez urte Elkartearen proiektuari ematen diozuen ezinbesteko babesa eskertu nahi dugu.



**AMETS  
ARZALLUS ANTIA**  
Biriatu, 2017-V-21  
Bukaerako agurra

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Azkeneraino iritsi gara  
geure leihoz, geure kalez  
eta bidean gaiet segika  
atera zaizkigun elez  
lehen bost ziren ta aurtan hamar  
kasik bete da ikaslez  
ta luzaroan bete dezagun  
bakoitzak ahal duen alez  
ikastola hori etorkizunez  
eta plaza bertsozalez.



2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala.//XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

# Ikasturte amaierako jaialdiak, Euskal Herri osoan

**Ekaina gerturatu ahala opor usaina hartzen hasiak gara, eta ikastetxeetan bertsojaritza lantzen duten gaztetxoek jaialdiak izaten dituzte ikasturtean egindakoa jai giroan biribiltzeko.**

Euskal Herri osoko ikastetxeetan egiten dira ikasturte amaierako jaialdiak. Araban lau topaketa jendetsu antolatu dituzte. Ikastetxeak elkartzen dira herriko edo bailarako, eta ikasgela bakoitzak prestatutako emanaldia eskaintzen du. Bertso-eskolek ere parte hartzen dute topaketetan.

Bizkaian 18 bertso topaketa egingo dituzte ikasturtea agurtzeko. Herri mailakoak dira topaketak, beste ikasle eta gurasoen aurrean. Bertso sortak kantatzen dituzte Oier Ponce musikariaren laguntzarekin, eta bertso saioa ere eskaintzen dute bi bertsojarik. Bestalde, kantaldiak ere egiten dituzte Bizkaian, Eire Larrea musikariarekin. Aurten 60 inguru egin dira.

Gipuzkoan herri mailako 100 jaialdi izango dira eta 33 Nafarroan. Beste ikasle, irakasle eta gurasoen aurrean egiten dituzte bertso emanaldiak.

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko ikasleek Bertsoari Tiki egunak antolatu dituzte Larresoron, Hendaian eta Aiziritzen. Ikastola bakoitzeko haurrak besteen aurrean haien sortak kantatzen dituzte bertsoari eta musikariarekin batera. Bertsoan Maddalen Arzallus, Sustrai Colina, Nahia Sasco, Amets Arzallus eta Battitt Crouspeyre ariko dira eta musika jotzen Oskar Estanga eta Maddalen Arzallus. Horrez gain, eskola eta kolegioko ikasleekin beste bost besta egun egiten dira Donibane Lohitzunen. Hego Lapurdiko Hirigunearrekin lau

ospatuko dira; bertan ariko dira Amets Arzallus eta Sustrai Colina Oskar Estanga musikariaren laguntzarekin. Bestalde, beste Besta Egun bat ospatuko da Sainte Marie kolegioarekin.

Udan bertsojaritzarekin gozaten jarraitu nahi duenak izango du aukera, besteak beste, Bertso Udalekuetan. Eta datorren ikasturtean berriro ere bertsojaritza izango da ikasgelan.



Ikasleak kantuan, Bermeoko topaketan.//XDZ

## Udarekin batera, Bertso Udalekuak!

**Uztailaren hasieratik abuztuaren amaierara arte, bost txanda izango dira Bertso Udalekuetan. Guztira 200 gaztek baino gehiagok hartuko dute parte.**

Badatoz Bertsozale Elkartek antolatutako Bertso Udalekuak. Aurtengo urtea berezia izango da gainera, 20. urteurrena izango delako.



Bertso Udalekuetako hezitzaileen prestaketa asteburua.//XDZ

Guztira bost txanda antolatu dira: Orion (Gipuzkoa) lehena, uztailaren 4tik 10era; Irañetan (Nafarroa) uztailaren 11tik 20ra; Muxikan (Bizkaia) eta Bidarrain (Baxenabarre) uztailaren 22tik 31ra; eta, Zuhatzan (Araba), abuztuaren 21etik 25era.

Bost txanda horietan, guztira 9 eta 18 urte bitarteko 226 gaztek hartuko dute parte. Horiekin 43 hezitzaile egongo dira: zuzendariak, begiraleak, praktiketan daudenak eta sukaldariak.

### Prestaketa asteburua

Hezitzaileek prestaketa asteburua eduki zuten maiatzaren 5ean eta 6an, Barrian (Araba). Prestaketa asteburuak Bertso Udalekuetako filosofia eta transmisioa bermatzeko antolatzen dira. Elkar ezagutzeko dinamikak eta programazioak egiteko ideia zaparradak egin ostean, udalekuen prestaketan aritu ziren hezitzaileak. Jadanik "uda heltzeko gogoz" daudela esan dute, asteburua "gustura eta ilusio handiz" pasa ostean.

# Talde-lanaren indarra eta gozamina

**Otsailean eta martxoan hasi ziren Bizkaiko Taldekakoa eta Gipuzkoako Herriartekoa, eta oraintsu amaitu da euren ibilbidea. Talde-lanean oinarritutako txapelketak dira, eta guztiaren gainetik, helburua elkarrekin bertsoaz gozatzea izan da.**

Ohiko txapelketa eredutik atera eta taldeka aritu dira aurtan Bizkaian eta Gipuzkoan, Taldekako eta Herriarteko txapelketetan. Emaizta onak eman dituzte txapelketek. Horrela adierazi dute Beñat Vidal Bizkaiko Sustapen arduradunak eta Eneritz Artetxe Gipuzkoako eragileak.

Lehenengo balorazioa positiboa izan da. "Ziur, ordea, badela zer hobetua eta horregatik balorazio orokorra parte hartzaileekin egin nahi dugu", esan du Artetxek. Bizkaian ere berdin: "Proposamenak jaso eta hobetzea da orain tokatzen dena", adierazi du Vidalek.

Txapelketa eredu hauen helburuak asko dira, baina nagusia "bertso mugimendua aktibatzea eta suspertzea da". Baditu ordea beste azpi-helburu batzuk ere: epaileak eta gai jartzaile berriak formatzea, bertso saioen grabazioek duten garrantziaz jabetzea, eta abar.

Taldeak gutxienez sei lagunekoa izan dira (hiru bertsolari, epailea, gai-jartzailea eta antolatzailea). "Talde osoaren ardura izan da saio bakoitza ondo ateratzea, eta argi ikusi da saio baten zati bat bakarrik dela bertsoan egitea bera", esan du Vidalek. "Askotan

bertsolarien lanaz bakarrik ohartzen da jendea, eta kasu honetan ikusi da ez dela horrela. Guztiak egin dute izugarrizko lana eta entzuleen erantzuna ere bikaina izan da", gaineratu du Artetxek.

Parte-hartzaileak pozik ikusi dituzte Gipuzkoan: "herri askotan deseginda zeuden bertso-eskolak berriz ere biltzeko balio izan du, eta nik uste gerora ere arrastoa utziko duela", dio Artetxek. "Gainera, taldeak osatzeko inoiz bertso-eskolan ibili ez den jendea hurbildu da eta herriko bertsozaleekin harremanak egiteko ere balio izan du", gaineratu du.

Bizkaian saretzearen indarra azpimarratu dute: "Bertso munduko jendearen artean harremanak sendotzeko balio dute horrelako ekimenek, eta aurrerago gauza asko erraztu eta sortzen dira horrela", azaldu du Vidalek.

Elkartearentzako positiboa izan dela uste dute: "Jende asko ezagutzeko eta harreman berriak egiteko balio izan digu, bertso eskolekiko gertutasuna indartzeko".

Zorionak beraz Bizkaiko Taldekakoan eta Gipuzkoako Herriartekoan parte hartu duzuen guzti-guztioi!



Gipuzkoako Herriartekoaren finala.//XDZ



Bizkaiko Taldekakoaren finalaurrekoa.//XDZ





## Puntu jarrita

BIXENTE GOROSTIDI LOIDI

Bertsotan ohitura dugun bezala bukaeratik hasiko nauk Ekaitz. Berriz inoiz txapelketaren trenera igotzeko tentaziorik izango banu, esku-hutsik sartuko nindukek, Tolosan lehenengo aldiz Alfontso, Ibon, Xabier eta lauok elkartzen hasi ginen garaiko inozentzi harekintxe. Bestela askotan hobe beharrez eta bada ez bada, behar ez ditugun, erabiltzen ez dakigun eta erabiliko ez ditugun traste askorekin bete ohi dizkiagu mailetak, eta horrek azkenean traba besterik ez dik egiten.

Hala ere, ez zaidak iruditzen txapelketaren trenerako txartelik berriz hartuko dudarik. Ni ez nauk sekulan lehia zalea izan. Kirolari kaskarra ninduan gaztetan eta musean ere ez nian pulamentuz ikasi, eten gabeko irabazi nahi eta beharrak gogaitu egiten ninduelako.

Bertsotan hitzak liluratuta hasi ninduan ni. Peñaren bertso elegante bat entzun eta hain hitz gutxitan hainbeste nola esan ote zitekeen nire buruari galdetuz. Ikasi nian bertso hura, ikasi nian doinu hura, eta bertso haren hitzak aldatuz hasi ninduan oharkabean bertsoan ikasten. Jolas huts huen niretzat, eta orduan ez nian pentsatzen jolas hark lehiarekin zerikusirik izan zezakeen ere.

Tolosan bertso eskolan hasitakoan konturatu gintuan batzuk bertso-treanean zebiltzala, eta hara igotzeko saiakera egin genian, eta ustez baita igotzea lortu ere... Baina trenik gabeko herrikoak izan gu, eta uste genian trenak garai bateko lurren-makinen abiadura zebiltzala. Laster oharitu gintuan ordea jendea tren azkarragoetan, Tolosatik pasatzen diren aldiriko eta espreso horien abiadurakoetan zebilela; eta ez hori bakarrik, artean abiadura handikorik ez bazen ere, asko zirela abiadura handiko horren bila zihoazanak...

Eta Xabierrek, Ibonek, Alfontsok eta azkenean nik ere, nahiago izan diagu Amezketatik eta Elduaindik, astoz edo behor gaiean noizbehinka Tolosara jaitsi, eta aldi behin garai bateko bakeroak bezala tren zahar hartara igo eta jaitsi jarraitzea.

Jokin Sorozabal asto gaiean ez ezik, abiadura handikoan ere ibilia duk eta gustura jakingo nitek gaur egun ze bertso bidetan dabilen, edo bertsoak ze abiaduratan dabilizan bere buruan.

# Koplak

## Bertsularien Lagunak Elkarteak bertso irakaslea behar du

Bertsularitza bertso-eskoletan eta ikastegietan irakasteko langilea xerkatzen ari da Bertsularien Lagunak Elkartea. Interesa duenak Curriculum Vitae eta eskuz idatzitako motibazio gutuna uztailaren 7rako helarazi behar ditu Bertsularien Lagunak Elkartera. Informazio gehiago [www.bertsozalea.eus](http://www.bertsozalea.eus) atarian.

# Poto-Finixa



Bertsozalearen bidalketa katea

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Xenpelar Dokumentazio Zentroak dokumentalista behar du

Bertsularitzak sortutako dokumentazioaren bilketa, antolaketa eta katalogazioarako lankide bila dabil Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Interesa duenak Curriculum Vitae eta motibazio gutuna bidali behar ditu bidali behar du [xenpelar@bertsozalea.eus](mailto:xenpelar@bertsozalea.eus) helbidera, 2017ko ekainaren 25erako (azken egun hau barne). Xehetasun gehiago [www.bertsozalea.eus](http://www.bertsozalea.eus) atarian.

**BERRIAK  
JAIO  
GINEN**

**JON MAIA SORIA**

**LIBURU  
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

**Lanku**  
[www.lanku.eus](http://www.lanku.eus)  
943 26 07 55

PUBLIZITATEA